



#### 4 UDALA

### Irudi korporatibo berriaren aurkezpen jendetsua

Lasarte-Oriako Udalaren irudi berriaren aurkezpena festa bilakatu zen astearte arratsaldean. Udaletxe berriaren atarian, Antonio Mercero plazan hain zuzen, aurkeztu zuten udal ordezkariak aurrerantzean Lasarte-Oriako udala irudikatuko duen logoa. Honek aniztasunean du oinarria eta honen isla da "emozioen horma". Udaletxe berriaren geratuko den murala herriko 37 elkarteren esaldiak jasotzen ditu oraingoz.

#### 5 ASTE BERDEA

### Elikadura oinarritutako ekintza egitaraua

Aste Berdea antolatuta du Udalak beste urte batez eta bi ekintza berezi izan dira herrian honen aitzakian. Aurtengoan "Pentsatu, elikatu eta aurreztu" lelopean elikagaien ziklo guztiari buruz hausnartzeko aukera egon da. Astelehenean Slow Food zer den ezagutzeko aukera izan zen eta asteazkenean, konposta nola egin. Bihar Okendon bertako ekoi-zeleen produktuen azoka egingo da eta eguraldi ona egiten badu, hainbat tailer egiteko aukera izango da.



"Alizia bitxikerien munduan" eta "Erruzkiñe" lanak aurkeztu zituzten DBH-ko gazteek. Honetaz gain, dantza garaikideko emanaldia ere izan zen asteazkenean.

## Hasi da Antzerki eta Dantza astea

### Antzerki eta dantzaz beteriko asteburua izango dugu

Kukuka antzerki eta dantza eskolako Antzerki eta Dantza astea hasi zen asteazkenean. Izotzaldia urtutzen lehenak DBH mailako antzerki eta dantza taldeak izan ziren. Haien ikaskide eta senideei urtean zehar egindako lana aurkeztu zieten. Baina ez dira bakarrik izango, gaur eta asteburuan zehar adin guztietako taldeak ikusteko aukera izango da Manuel Lekuona kultur-etxean.

**K**ukuka antzerki eta dantza eskolako DBHko gaztetxoek eman zioten hasiera 11. Antzerki eta dantza asteari asteazkenean. Hemendik ekainaren 15era bitartean, Manuel Lekuonako aretoan eskolako aktore eta dantzari talde ezberdinek urtean zehar prestatutako lanak aurkeztu dituzte.

Era honetara, asteazkenean goiz eta arratsaldean, DBH mailako gazteek ipuin klasikoetan oinarritutako bi antzerki eskaini zituzten eta dantza garaikideko emanaldia.

Hain zuzen ere, Mikel Sarriegi irakasleak moldatutako "Erruzkiñe" eta "Alizia bitxikerien munduan" lanak

taularatu zituzten gazteek. Gainera, musikak eta dantzak ere izan zuten bere tartea hauetan.

Antzerkiez gain, dantza garaikideko saio ederra ikusteko aukera ere izan zen.

Gaztetxoek dantza garaikide taldeek lau pieza eskaini zituzten, zein baino zein ikusgarriagoak.

#### Asteburuan

Honela, aipatu legez, Antzerki eta Dantza astean hainbat lan ikusteko aukera izango da ondorengo bi astetan. Eta beraz, gaurtik igandera antzerkia eta dantza izango dira nagusi Manuel Lekuona kultur-etxean.

Gaur, 22:30etik aurrera, helduen taldeak "Haize Berrundada" lana aurkeztuko du.

Eta emanaldi berean gazteen taldeak egingo du dantza garaikidea.

Bihar arratsaldean, berriz, gazteen taldeak "Tragedia bat?" antzezlan eskainiko du eta helduen taldeak, berriz, dantza garaikidea egingo du. Hau 20:00etatik aurrera izango da. Igandean goiz eta arratsaldean "Dantzaz Blai! dantza eta sorkuntza ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da.

Sorpresaren bat ere iragarri dute Kukuka Antzerki eta Dantza eskolakoek astebururako.

### UDAN ERE EMAN EUSKARA ELKARRI



ikasi euskara eman izena **aek-n**  
Azerkete ofizialak eta ihula hornotzeko [www.aek.org](http://www.aek.org)

**aek-k**

hitza ematen dizu  
euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzula

**munterri**  
euskaltegia **aek**

- 100 orduko klaseak, uztaila-iraila
- Hizkuntza perfilak 1-2-3 (EGA)
- Euskalduntzeko maila guztiak
- Euskara agiriak

Geltoki kalea 17, beheka • 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 372863 [lasarte@aek.org](mailto:lasarte@aek.org)  
[www.munterri.blogspot.com.es](http://www.munterri.blogspot.com.es)

Neure kabuz



Ane Labaka

Nazkatua nago

“Emakume bat hil dute Laudion, eta senarra atxilotu du ertzaintzak” (2013-05-24). “Atzo goizaldean 18 urteko gazte batek ustez bikotekideari hainbat kolpe egin zizkion, berarekin joan nahi ez eta lagunekin geratzea erabaki zuelako” (2013-05-27). “19 urteko gazte bat atzeman dute Donostian, bikotekidea jotzeagatik” (2013-05-29). “Atxilotuaren etxean eta gimnasioan aurkitutako gorpuzkiak emakume batenak direla baieztatu dute polizia iturriek. Igandean jipoitutako andrearen egoerak okerrera egin du” (2013-06-04)...

Nazkatuta nago. Nazkatuta nago goizero gosaria horrelako berriekin garratzeaz. Jendearen inunitateaz, pasibitateaz, begietatik kendu nahi ez duten bendaz. Nazkatuta.

Argian, “Sexismoa iragarkietan” izeneko bideoa ikusi berri dut. Sarah Zelinski, Kayla Hatzel eta Dylan Lambi-Raine ikasle kanadiarrek gizon eta emakumeen gorputz zein rola iragarkietan nola islatzen diren azaldu dute bertan eta honek indarkeria sexistarekin dituen loturak ezarri. Irudiak hemen agertzeko aukerarik ez dudanez gero, bideo hau ikusteko gonbidapena luzatu nahi dizuet.

Eta ikusi nahi ez dutenentzat, edo interesatzen ez zaiela uste dutenentzat, hiru datu: “2011n EAEn emakumeen kontrako 4.403 eraso salatu ziren, bestela esanda, 13 eguneko”, “EAeko sexu-erasotzaileen artean hamarretik bat adin txikikoa da” eta batez ere hirugarren hau; “emakumeen aurkako indarkeriak heriotza gehiago eragiten ditu minbiziak, trafiko istripuek eta gudek baino”.

Nazkatuta gaude.

Eta nazkatuta gaudela esateaz nazkatzen garenean, zer?

Zorion agurrak



Iker

Ez dakit zu banketxean gorde asko balio duzualako edo jende gabeko uhartre batean altxorra zarelako.



Maitane eta Ainara

Zorionak bikote, primeran pasa urtebetez! Muxu pila bat etxekoan partetik.



Ibai

Zorionak zure zazpi-garren urtebetetzeari gurasoen partetik!!! Oso ondo pasa zure egunean!



Gabi

Zorionak txapelduna! Ondo pasa zure eguna. Muxu pila.



Nahia

Zorionak Nahia. 10 muxu guraso eta Noran partetik



Elur

Ene maitia ze azkar pasatzen den denboradagonekoz 7 urte. Muuaaa!!



Ekhi

Zorionak! Muxu handi bana aitoxo eta amatoxoaren partez Txixixe



Naroa

Zorionak printzesa zure bigarren urtebetetzeari aita, ama eta familia guztiaren partetik!



Lucia

Zorionak printzesa!! Bost urte, esku osoa!! Txokolatzeko muxu pila bat aita, ama eta Lauraren partetik.



Ane

Zorionak zure bederatzigarren urtebetetzeari, ondo pasa ospakizunean. Xabier, Josu eta gurasoak

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Juan XXIII kalean garajea alokatzen da. Hilean 60euro. Harremanetarako deitu 943 363 524 edo 648 614 769 zenbakira.

Salerosketak

• Kotxea salgai. Mercedes Vito 4000euro-tan. (Ohea du) Harremanetarako, 630 032 779  
• Umeentzako aukla bat salgai egoera onean. Maclaren Techno-xt markakoa. Erosten duenari egurrezko seaska bat oparituko nioko. Harremanetarako, 687 965 454.

Lan-eskariak

• Neska arduratsua orduka edo interna

moduan lan egiteko prest. Harremanetarako, 663 692 672.

- Haurrak edota pertsona adinduek zaintzen lan egingo nuke. Orduka ere bai. Harremanetarako, 696 27 96 25
- Lan bila nabil, interna edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako, 649 907 548.
- Neska arduratsua lana bilatzen du, interna moduan edo orduka. Harremanetarako, 602 504 188.
- Adinduek zainduko nituzke, interna edo orduka. Harremanetarako, 638 372 872
- Neska arduratsua lana behar du. Garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintza. Harremanetarako, 606 642 187.

- Neska arduratsua garbiketa lanak, haurrak edo pertsona helduek zainduko lituzke. Harremanetarako, 628 232 293.
- Lizentziatu gazte klase partikularak emango lituzke. Maila guztiak, Lanbide hezkuntza eta Unibertsitate (Arkitektura). Marrazketa tekniko, geometria deskriptiboa, Autocad, matematika, fisika, lengoia eta literatura. Orduetgi malgua. Harremanetarako, 606 260 711.

Lan-eskaintza

• Ile-apaintzailea behar da. Esperientziarekin. Harremanetarako, 647 821 361.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
G-20407557  
Legezko gordailua:  
SS513/93  
ISSN: 1134-0053  
Inprimategia  
Zeroa Multimedia, S.A.  
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Jon Altuna I., Maider Azumendi, Jon Altuna E.  
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola  
publizitatea@ttakun.com  
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Murba, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

PSE-EE

# KZgunea mantentzeko eskaera

*PSE-EEK bi mozio aurkeztuko ditu asteartean eztabaidatzeko*

**PSE-EEK bi mozio aurkeztuko ditu asteartean egin den ohiko plenoan eztabaidatzeko. Udalak ateratzen dituen pliegoetan udalerriko langabe-tuak kontratatzeko baldintza jartzea eskatuko du, baita KZgunearen zerbitzua mantentzea ere. Hauek azaltzeko agerraldia egin zuen Jesus Zaballosek asteazkenean.**



Asteazkenean egin zuen agerraldia PSE-EEK ordezkaria Jesus Zaballosek.

**Maidar AZURMENDI**

Apirilean 1.509 pertsona zeuden langabezia Lasarte-Orian %17 eta "udaletxeak dituen eskumen mugatueta ere" esparru honetan lanean jarraitzea beharrezkotzat jo du PSE-EEK ordezkaria Jesus Zaballosek.

Honen baitan udalak egin dezakeena gutxi dela azpimarratzen du "baina udalak ateratzen dituen pliegoetan baldintza jarri dezake herrian lanak burutu behar dituen enpresak herriko langabeak kontratatzeko hala behar badu".

Aurreko legealdian Zaballosek azaldu moduan, Gaztelekuko lanetan herriko 10 langabetu kontratatu ziren, Loidi-Barrengo frontoiko lane-

tan 5, EPA-n egin ziren lane-tan bi, besteak beste. "Behintzat lanek iraun bitartean pertsona hauek lana izan zuten eta egungo egoeran oinarritzea iruditzen zaigu behintzat lan hau bermatu ahal izatea".

Aldi berean, Zaballosentzat justua da herritarrek euren zergekin udalera apor-tatzen dutena nolabait bueltan etortzea. Horregatik kontratuetan aurrerantzean baldintza hau sartzeko eskae-ra egingo dute.

## KZgunearen garrantzia

Bestalde, aurkeztuko duen bigarren mozioa KZguneen sarearekin du zerikusia. "Dirudienez Eusko Jaur-larritza zerbitzu honetan murrizketak egitea pentsatzen ari da, eta gure ustez gune honek, gure herrian ematen duen zerbi-

tzua mantentzea funtsezkoa da".

2001ean martxan jarritako ekimenaren baitan jaio ziren KZguneak, Jaur-laritzak herri-tarren digitaliziorako gune bezala martxan jarri zituen herri guztietan.

Egun ikastaro eta interne-tan erabilerarako gune izateaz gain, administrazioarekin internet bidez egin daitezkeen tramiteak ezagutzea emateko gune ere badira "eta krisi garaian lan bilaketarako oso zerbitzu beharrezkoa eskaintzen dutela ez da ahaztu behar".

Zaballosen azaldu duenez, dagoeneko langileen murriz-keta bat egin da eta hau dela eta, Lasarte-Oriako udalari eskatzen dio PSE-EEK zerbitzu honen alde egin eta Eusko Jaur-laritzari adieraztea KZgu-nea mantentzeko beharra.

IKASTAROA

## Janari manipulatuak ikastaro berria

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalarekin elkar-lanean, arrisku handiko janari-manipulatuak ikastaroa anto-latu du. Honako %100 subentziona izango da langabe-tuentzako. Ikastaroa ekainaren 21ean izango da Anbulatorioko bigarren solairuko erabilera anitzeko aretoan. Orduetgia 09:30etik 13:30ra bitartekoa izango da. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, deitu Elkolab, S.COOP. 943533303 telefonora.

ZABALETA AUZOA

## Afarien zozketako zenbakia

Zabaleto Goietan Goiegi jatean lau pertsonentzako afaria zozketatu zen. Zenbaki irabazlea, 6257 da.

Zorteko pertsonak hilabeteko epea du, Zabaleta auzolan elkarte kideekin harremanetan jartzeko.



MERKATARITZA

## Udala eta Aterpearen arteko akordioa

Lasarte-Oriako Udalak Aterpea Merkataritza elkartearekin lanki-deta hitzarmena sinatu zuen asteartean. Honen bitartez, Udalak elkarteari laguntza eman eta herriko komertzioa sustatuko du.

Pablo Barrio alkatea, Gorka Lizarraga Merkataritza arloko burua, Dioni Avila merkataritza teknikariak eta Aterpeko Jenny Garcia eta Itziar Irurtzun Udaltzatzen aretoan bildu ziren Udala eta herriko elkartearen arteko hitzarmena sinatzeko.

Gorka Lizarragak azaldu zuenez, honen bitartez herriko merkataritzari bultzada bat eman nahi zaio. Horretarako elkarteak eta udalak adostutako 50 bat neurri martxan jarriko dituztela azaldu zuen Dioni Avilak. Horien artean, hiruhilabe-tan behin Aterpeko eskuorriak banatu etxeetan edo herriko merkataritza elkarte baxkide egitea sustatzea.

Horretaz gain, urtean zehar Aterpe elkarteak antolatzen dituen ekintzak ere diruz lagunduko ditu Udalak. Hala nola, Stock Azoka.

Guztiak pozik agertu ziren elkar ulertzea dagoelako eta bide ireki delako, "negoziaketetan gaude," adierazi zuen alkatea.

# Euskara-saileko diru-laguntzen deialdia

Euskara sailak bost diru-laguntza deialdi jarri ditu martxan aste honetan. Euska-ra ikasteko bekak, udako uni-bertsitateetako euskarazko ikastaroetarako, Aisialdiko begirale eta zuzendari tituluak euskaraz ateratzeko ikas-taroetarako eta Enpresetako eta elkarteetako jarduerak euskalduntzeko diru-laguntzak dira. Guztira 33.060 euro banatu ahal ditu Udalak.

## Euskara ikasteko

Euskalgegi batean ikasturtean zehar gutxienez 80 orduko ikastaro bat egin duen herritar-rrak edo gutxienez hilabete segidan iraun duen barnete-gia egin duenak edo, bi mota horietako ikastaroren bat egin ondoren udaran beste ikastaro bat egin duenak matrikula-ren %40ra arteko diru-laguntza jasotzeko auke-

ra izango duela jakitera eman du Euskara zerbitzuak.

5 urte edo gutxiagoko ha-urra duten gurasoek, herrian diharduten langileek eta herrian monitore dihardutenek, berriz, matrikularen %75 arte-ko diru-laguntza jasoko dute.

## Udako ikastaroak

Udako unibertsitate mailako ikastaro bat euskaraz jasotzen duen herriko ikasle, langabetu edo erretiratuek matrikularen %50a arteko diru-laguntza jaso ahal izango du.

## Begirale edo zuzendari

Begirale edota zuzendari titulu-a ateratzeko ikastaroa iazko irailaren 1etik aurtengo abuz-tuaren 31 bitartean hasi eta bukatuko duten herritarrek matrikularen %50 arteko laguntza jasotzeko aukera izango dute.



Euskalgegi batean euskara ikasten dutenentzat diru-laguntzak.

Baldintzak, ikastaroa euskaraz izatea, Eusko Jaur-laritzak homologatua egotea eta ikastaroaren alderdi teorikoa gaintzea.

## Enpresak euskalduntzeko

Hamar langile baino gutxiagoko enpresek eta herriko elkarteek beraian jarduerak

euskalduntzeko diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte ere.

Kontzeptu guztiak kostua-ren %50 arte lagunduko dira; errotuluak 300 euro gehienez; irudi korporatiboa 200 euro gehienez; web-orriak gehienez 450 euro; enpresan euskararen erabilera normalizatzen lagun

dezaketen programa informa-tikoak gehienez 200 euro; kanpoko erabilerarako doku-mentazioa gehienez 300 euro.

Hamar langile baino gehiagoko enpresek "Baietz gurean!" programan parte hartzea erabakiz gero, diru-laguntza jasotzeko aukera izango dute hitzarmena sinatu-ta.

## Eskaerak eta informazioa

Diru laguntza hauen eskaera, dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko dela azpimarratzen du Euskara sailak. Beranduenez azaroa-ren 30a.

Informazio gehiago nahi duenak Udaleko web-an www.lasarte-oria.org edo euska-ra zerbitzura deitu dezake 943 376 184.



# Aniztasunaren herria

## Udalaren irudi berriak herria osatzen duen aniztasun kulturala du oinarri

**Udalaren irudi berriaren aurkezpena festa bilakatu zen. Udaletxe berriaren atarian, Antonio Mercero plazan hain zuzen, aurkeztu zuten udal ordezkariak aurrerantzean Lasarte-Oriako udala irudikatuko duen logoa. Honek aniztasunean du oinarria eta honen isla da "emozioen horma" ere. Udaletxe berriari geratuko den murala herriko 37 elkarteren esaldiak jasotzen ditu oraingoz. Aurkezpenean musika eta dantza izan ziren Kukuka, Erketz eta Zambra taldeen esku.**

**U**na Muñoa bertsolariak eman zion hasiera Lasarte-Oriako Udalaren irudi korporatibo berriaren aurkezpen ekitaldiari.

Honetan gainera herriko elkarten ekarpenarekin osatutako "emozioen horma" deituriko murala zabaldu zen udaletxe berriko atarian.

### Emozioen horma

Horrela banan-banan Elkarte bakoitzeko kideek argitara eman zuten euren esaldia, beraiantzat Lasarte-Oria zer den laburtzen dutenak, gai-nontzekoen babesa eta txalo artean.

Tartean Kukukakoek dantza bat eskaini zuten baita Erketzek eta Semblante Andaluz elkartereko Zambra taldeak ere.

Horma osatu duten elkarteak: Lan eta lan antzerki taldea, Aterpea, CD Lasarte, Xumela, Buruntzazpi elkarte, Arrieskalleta elkarte, Dinbi Banda, Semblante Andaluz, Jalguene, Palomo linares, Buruntzazpi, Alboka, Biyak bat, Ttakun, Kukuka, AEK, XPressionk, PSE, LOHP, Okendo zinema taldea, Lasarte-Oriako Zero Zabor, Bertso eskola, Sorgin jaiak, Landaberriko guraso elkarte, Xirimiri, Zabaleta auzolan, Erketz, EHBildu, Islada ezkutatuak, EAJ, PP, ARAHMA, Ostadar, Ernai, CF Texas, Herrira, Saharar jendea, Buruntzaldea IKT izan dira.

Besteak beste, aurrerantzean udaletxe berriari sartzekoan herritarrek honakoak

irakurri ahal izango dituzte: "Herriak komertzioa biziartzen du", "Mendia eta ibaia, herria eta herria, txantxangorrien kabi xume eta kantaria", "Hango eta hemengo, iragana geure eginez, etorkizuna geuk eginez, gaur", "kolore erritmo, sentimendu eta nota ezberdinez osaturiko pentagrama", "Asteburuero herria bero-bero. Lasarte-Oriat-HARR@ GAUDE!", "Lats arteko herria, anitza". "Melodia bakarra sortzen duten ahots anitzak", "Ttakun ttan ttakun, Lasarte-Oria euskaldun, eta ez denari lagundu diezaiogun", "Ilusioz beteriko herri-tar alai eta anitzen elkertasuna da Lasarte-Oria!".

Guztira 37 esaldik osatzen dute horma. "Baina badira elkarte gehiago eta euren ekarpenak jasotzeko nahikoa kristalera ere bai" azpimarratu zuten alkateak.

### Elkarbizitza

Pablo Barrio alkateak hartu zuen hitza ekitaldiari amaiera emateko. Lasarte-Oriaren historiari erreparatu nahi izan zion bere mintzaldiaren hasieran herriak mendeetan bizitako garapena azaltzeko "XIX. mendearan amaiera aldera, gehienez ere bostehun bat bizilaguneko hirigunea zen, eta gehienak baserriarizten ziren, harik eta industrializazioa iritsi eta fabrika handiak kokatzen hasi ziren arte".

Lasarte-Oria aniztasunean oinarritzen den herria dela esan zuen alkateak "bistakoa da Lasarte-Oria oso jatorri



Zabaletako Auzolan elkartereko kideak euren esaldia irakurtzen. atzean, Lasarte-Oriako irudi korporatibo berria.

desberdinetako biztanleok osatzen dugula, eta, neurri batean, horren arrazoia da gu edo gure familiak bidaiariak izan direla".

Egun udalerrria 70 kultura ezberdin baino gehiagotako jendeek osatzen dute, bakoitzak bere jatorrizko hizkuntzarekin.

Finean jatorri ezberdinen arteko elkarbizitza ezker osatzen da herria eta ideia hau jaso nahi izan du aurkeztu zuten irudi berriak "Lasarteri bere izena eman dion familia noble haren heraldika tradizionaletik urrun. Lasarte-Oria orduan baino askoz gehiago da, Lasarte-Oria bi herri-gune bereizi zirenean baino, edo Hernanien, Andoainen eta Urnietaren parte zenean baino".

Aurkezpenean bildutako herritarrak "populazio bizi, aktibo eta parte-hartzaile baten erakusgarri" direla esan zuen alkateak horregatik "eskerrik asko guztioi herri hau den bezalako egin duzelako".

### Webaren itxura berria

Bestalde, aipatu udalaren webgunean sartzekoan herrita-

rrek [www.lasarte-oria.org](http://www.lasarte-oria.org), modu desberdinean ikusiko dutela.

Irudi berria baliatuz, udalak egun martxan dituen hiru webetara sarbidea halabidetu-ko du aurrerantzean, "Admi-

nistrazioa" klikatuta ohiko web instituzionalera eramango gaitu, "kultura" klikatuta [lasarteoriasarean.eu](http://lasarteoriasarean.eu)-ra eta "Albisteak" klikatuta, orain harte parte-hartzerako weba izan den "Hitzartu"-ra.



Kukuka eta Zambreak emanaldiez gain, Erketzekoen dantza ere izan zen.

### ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutu    Solomoa baratxuritan  
 Efeko txorizoa    Tripakiak- Saltxitxak  
 Txistorra    Basurde burua  
 Baserri pateak

### BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria  
 Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451



Bukaeran familia argazkia atera zuten elkarteetako ordezkari eta udalekoek.



# Elikadura oinarri Aste Berdean

Bihar goizean bertako produktuen azoka egingo da Okendo plazan

**Aste Berdea antolatu du Udalak aurten ere eta bi ekintza berezi izan dira herrian aste honetan. Aurtengoan "Pentsatu, elikatu eta aurreztu" lelopean elikagaien ziklo guztiari, ekoizpena, salerosketa, kontsumoa eta sortutako hondakinei buruz hausnartzeko aukera izan da. Astelehenean Slow Food mugimendua zer den ezagutzeko aukera izan zen eta asteazkenean, konposta nola egin. Bihar Okendon bertako ekoizleen produktuen azoka izango da eta eguraldi ona egiten badu, hainbat tailer egiteko aukera ere izango dute haurrek.**

Juan Manuel Garmendiak, Donostiako Slow Food taldeko arduradunak Slow Food mugimenduari buruz azalpenak eskaini zituen astelehenean Arrieskalleta elkartearen Aste Berdearen baitako ekintzan.

"Slow food mugimendua eko-gastronomikoa da" bertako produktuak defendatzen ditu mugimendua eta gizarteak hauek kontsumitzearen garrantziak konturatzeko dute helburu honen baitan dauden pertsonak.

## Bertako produktuak

Garmendiak azaldu moduan "elkagai: ona, garbia eta justua"-ren aldeko mugimendua da. Janariari, produktuari eta honen ekoizpenari eta banaketa prozesuari arreta jartzen datza.

Jose Mari Pacha, berriz, Euskal Oiloak ekoiztearen inguruan mintzatu zen, honek Andoaingo baserrian 125 euskal oilo ditu eta hauek nola hazten dituen azaldu zien bertaratutako herritarrei. Euskal oiloaren baitan bost mota edo arraza daudela azaldu zuen "guztiak galtzeko arriskuan". Hau dela eta berea bezalako produktuen beharra defendatu zuen "eta horretarako kontsumitzaileak ere balioa eman behar dio gure produktuari".

Mintzaldi interesgarriaren ostean datatzeko laborategia egin zuten Rafael Indo Euskal Gastronomia Kofradiako kideaik prestatutako jakiekin. Euskal oilo arrautza eta barazkiak erabiliz nahaski ezberdinak prestatu zituen guztientzat.

## Konposta

Asteazkenean berriz, Aitziber Sarasola Artelatze teknika-riak gidatuta konposta nola egin ezagutzeko aukera izan

zen, aholkuak ere eskaini zituen.

Oraingo herriko konpostagune bakarra Zabaleta auzokoa da eta bertan egin zuten saioa. Konpostagailu bakoitzean bi etxeko hondakinak jasotzen dituzte.

Materia organiko guztia bota daiteke hemen Sarasolak adierazi bezala baina "hezurrik, oskolak, hauek material gogorrak dira eta denbora asko behar dute desegiteko horregatik, komenigarria da txikituta botatzea konpostagailura". Hala ere, komeni botatzen den oro ahalik eta zaituen botatzea "bokata osoak aurkitu izan ditut konpostagailuetan, hauek bota daitezke baina puskatzea da komenigarria".

Animalitxoak aurkitzea seinale txarra ez dela esan zuen "sagutuak egotea konpostagailua behar bezala aireztatzen ez delako izaten da" horregatik materia organikoa botatzean, materia lehorreko beste hainbeste bota eta nahastea funtsezkoa da baita aireztatzea ere. Zizare gorrien presentziak prozesua behar bezala egiten ari delaren seinale ere bada.

## Larunbatean, azoka

Bihar goizean Okendon azoka egingo da eta honetan, bertako barazkiak, esnekiak, ogia, gozogintza... denetarik izango da. Haurrentzako talo eta hazi eta landareen tailerrak antolatuko dira eta informazio puntu bat ere izango da.

Honetan, kontsumo arduratsuari buruzko informazioaz gain, gaiarekin eta herriarekin lotutako hiru mikroistorio ikusteko aukera izango da. Gogokoena bozkatu eta opariak eskuratu ahal izango dira zozketa bidez.



Zabaletako konpostagunean egin zen asteazkeneko saioa Aitziber Sarasola Artelatze teknika-riarekin.

# BIRZIKLAGARRIA NAIZ.

Pentsaera, jarrerak, ohiturak... aldatzeko gai naiz. **Gipuzkoarrok 2016ko %60 birziklatzea lortu behar dugu.** Eta nik aldaketa horretan parte hartu nahi dut.






GIPUZKOA 2016 > %60 BIRZIKLATUTA



Slow Food mugimendua ezagutzeko laborategi teoriko-praktikoa egin zen.

## LABURRAK.-



## Ostadarreko Infantil Txikia kopako txapeldunorde

Ostadar SKT-ko Infantil Txikiak lehengo larunbatean, ekainaren 1ean, Kopako finala jokatu zuen Martutenen Touring-en aurka eta kopak eskuetatik ihes egin ziren.

Infantil Txikiko entrenatzaileek azaldu digutenez, partida osoan atzetik ibili ziren herriko gazteak, arerioek poderio fisiko handiagoa zutelako. Hala ere, atsedenaldira banako berdinketarekin iritsi ziren.

Bigarren zatian ere, Ostadar errenka ibili zen eta Touring aurreratu zuen markagailuan. Baina herriko gaztetxoek bere aukeretan sinetsi eta azken minutuen partida berdindu zuten.

Honela, penalti jaurtiketetan erabaki zen finala, 5-4 eta Touring-ek eraman zuen Kopa.

Nahiz eta kopa ez lortu, entrenatzaileak oso gustura agertu zitien jokalariek denboraldi osoan egindako lanarekin.

## Giroko Porraren irabazlea Errazkin Bizikletak

Giroa amaitu eta, Ostadar SKT-ko lagunak lehengo ostiralean Porrako saribanaketa egin zuten Antxeta tabernan Usurbilen.

Porrako lehen saria "Errazkin bizikletak" txartelak irabazi zuen eta bigarren saria, berriz, "Hunter 007".

Ohikoa den legez, urdaiazpikoak ere banatu ziren, hauek "Eufe askatu!", "Iradi", "Auntxita", "Ibero askatu", "RJ", "Sapish Doping", "Asier Manzanal" eta azken postuan izan zen "Txerrizale" txartelarentzat izan ziren.

Era berean, puntu gehien lortu dituen tabernak ere saria izan zuen, Antxeta tabernak.



## SQUASHA.-

## Squash txapelketako finala bihar

Hirugarren postua eta kontsolazio-finala ere izango dira jokoan

**Squash zaletuek hitzordu garrantzitsua dute bihar arratsaldean kiroldegian, Herriko Txapelketa Sozialeko azken jardunaldia jokatuko baita, finala. Bi hilabeteko txapelketaren ostean, lehiaketako irabazlea jakingo da. Baina aurretik kontsolazio faseko garailea eta hirugarren postua erabakiko dira.**



Iazko txapelketako sarituko eta udal ordezkarien talde argazkia.

## Nerea EIZAGIRRE

Herriko XXV. squash txapelketa sozialeko finalak bihar arratsaldeko 16:00etatik aurrera jokatuko dira kiroldegian. Hamabost jokalarik hasi zuten apirilean lehiaketa eta fasez fase finaleko partaideak zehaztu ondoren, txapelketa irabazlea nor den erabakiko da bihar. Norgehiagoka interesgarriak ikusiko dira.

Hala ere, finalatan biziko den zirrararen erakusgarri izan dira aste honetan zehar jokatutako sailkapeneko azken partidak, bai kontsolazio-taldean baita tituluarengatik lehian ari direnen artean ere.

## Txapeldunen fasea

Txapeldunen faserako Kinin Calvo, Oswal Cañedo, Iñaki García Muñoz, Iker Cañedo, Dani Davila eta Xabier Amia-

nok sailkatu ziren. Maiatzaren 20tik hona sei jokalariek ligaska bidez jokatuko dute.

Seikote honetan Kinin Calvo iazko txapelduna eta Iker Cañedo finalistak zeuden.

Partida gogorak eta ongi eramanak ikusi ahal izan dira fase honetan eta batez ere azken asteetan, sailkapeneko lehen postuetan egon nahi baitzuten guztiak.

Izan ere, ligaskaren lehenengo biek finala jokatuko dute bihar eta hirugarrenak eta laugarrenak kontsolazio finala.

## Kontsolazio fasea

Bestalde, kontsolazio txapelketako finala ere jokatuko da.

Honetan txapelketan parte hartu duten gainenontzeko sei jokalariek parte hartu dute.

Kanporaketa sistema erabili da kasu honetan eta honela

partidaz partida erabaki da nork jarraitzen zuen hurrengo txandan.

## Finalen eguna

Gauzak honela, bihar 16:00etan, Aitor Tejero eta Fernando Monterok kontsolazio-finala jokatuko dute.

Eta ordu berean, txapelketa 3. eta 4. posturako partida jokatuko dute Kinin Calvok iazko txapeldunak eta Xabier Amianok.

Ondoren, iazko txapeldunordeak Iker Cañedok Iñaki García izango du aurrez aurre final handian. Norgehiagoka interesgarria izango da XXV. txapelketa honetako garailea erabakitzeko.

Finalaren ondoren irabazlearen artean sariak banatuko dira. Saribanaketa Lasarte-Oriako Udaleko, zein Udal Kirol Zerbitzuko ordezkariak izango dira.

## KIROL AGENDA.-

## PILOTA

Igandea 09

## SAN PEDROKO TXAPELKETA

Loidibarrengo pilotalekua, 10:30etik aurrera

Benjamin, alebin, infantil eta beterrano mailako partidak.



## SQUASHA

Larunbata 08

## HERRIKO TXAPELKETA -FINALAK

Kiroldegian, 16:00etatik aurrera

A. Tejero-F. Montero Kontsolazio finala

K. Calvo-X. Amiano 3. eta 4. postua

Ondoren, I. Cañedo-I. Garcia finala

## PALA

Astelehena 10-Asteartea 11

## SANTA ANA TXAPELKETA

Loidibarren pilotalekua, 18:30ak eta 19:30ak

## ATLETISMOA

Larunbata 08

## Burgos eta Valladolid

LOKEko G. Ormazabal, I. Rodriguez,

M. Rekondo, A. Galardi eta M. Eugi

BAT taldearekin lehiatuko dira

Espainiako Kluben arteko finalatan.

Igandea 09

## Ereñtzu, 09:30ean

Herriko hainbat atletek 3.

Ereñotzuko mendi lasterketan parte hartuko dute.

Fuente De, Kantabria, 11:30ean

Herriko hainbat atletek Fuente De-

ko kilometro bertikalean parte hartuko dute.

## JUDO

Igandean 09

## Kiroldegia, 10:30ean

LOKE-ko judoek denboraldi amaierako erakustaldia egingo dute.

## TRIATLOIA

Larunbata 08

## Zarautz, 14:00etan

Herriko hainbat atletek

Zarauzko Triatloian parte hartuko dute.

Igandea 09

## Donostia, 10:00etan

Herriko hainbat atletek

Donostri 2013 Sprint Triatloian parte hartuko dute.

## TXIRRINDULARITZA

Larunbata 08

## Bergara, 16:00etan

Bazpi Txirrindularitza eskolako eta

herriko kadeteek 1. urteko

Gaztetxoak txapelketaren barruan

dagoen LXXVII. San Antonio saria

proban parte hartuko dute.

## Mendaro, 16:30ean

Bazpi Txirrindularitza eskolako

infantilak Mendaroko saria proban

izango dira.

Igandea 09

## Biyak Bat elkarte, 08:00etan

Ostadar SKT-ko zikloturistek

Otzaurtera dute irteera.

Hondarribi, 09:30ean

Ostadar SKT-ko eta herriko

txirrindulariek XXVIII Bidasoako

Zikloturista biran izango dira.

Villatuerta, Nafarroa, 11:30ean

Bazpi Txirrindularitza eskolako eta

herriko kadeteek 2. urteko

Gaztetxoak txapelketako proba dute.

Anoeta, 16:00etan

Bazpi Txirrindularitza eskolako eta

herriko jubenilek XXX M. Oiarzabal

- A. Urkola Oroimenezko proban

parte hartuko dute

## BOLA-JOKOA

Larunbata 08

Tertanda, Araba, 10:00etan eta 16:30ean

Ostadar SKT-ko bola joko taldeko

jokalariek Euskal Herriko txapelketa

dute.

## Agenda

Ostirala 7-Igandea 9, Manuel Lekuona kultur-etxea



### Antzerkiaz eta dantzaz gozatu

Kukuka antzerki eta dantza eskolako 11. Antzerki eta dantza asteen heldu eta gazteen txanda izango da asteburuan.

Gaur, 22:30ean, helduen taldeak "Haize Burrundada" lana eskainiko du eta gazteen taldeak, berriz, dantza garaikidea egingo du.

Bihar, 20:00etan, gazteen taldeak "Trajedia bat?" lana

aurkeztuko du eta helduen taldeak, berriz, dantza garaikidea eskainiko du.

Igandean dantza izango da nagusi. Goizean, Dantzaz Blai! euskal dantza eta sorkuntzako lanak ikusgai izango dira eta arratsaldean, berriz, 19:00etatik aurrera, Dantzaz Blai! dantza garaikideko lanak ikusgai izango dira.

### Lasarte-Oria

#### Aste Berdea

OKENDO PLAZA

Larunbata 8, 09:30etik 13:30era

Elikagaien azoka berezia egingo da. Salmenta-postuak, informazio gunea, tailerrak, zozketak... denetarik izango da.



### Antzerki eta dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteazkena 12, 19:00etan

Kukuka antzerki eta dantza eskolako 11. Antzerki eta dantza astea. LH4, 5 eta 6 mailako gazteek "Gaurik Gaue-na" antzezlan eskainiko dute.

Osteguna 13, 19:00etan

Kukuka antzerki eta dantza eskolako 11. Antzerki eta dantza astea. LH1, 2 eta 3 mailako gazteek "Hankaz gora nola ikusi" antzezlan eskainiko dute.

Ostirala 14, 22:30ean

Kukuka antzerki eta dantza eskolako 11. Antzerki eta dantza astea. Helduen

taldeak "Monsterville" lana eskainiko du eta gazteek, berriz, dantza garaikideko emanaldia.

Larunbata 15, 20:00etan

Kukuka antzerki eta dantza eskolako 11. Antzerki eta dantza astea. Gazteenn taldeak "Minotauroa" lana eskainiko du eta helduek, berriz, dantza garaikideko emanaldia.

### Musika

ZULO ARETOA

Ostirala 14, 20:00etan

Zulo aretoaren inaugurazioa. Hotzikara eta Gaueko Itzalak taldeen kontzertua.

Ondoren, 00:00etan, DJ Gatzet-en saioa.

Larunbata 15, 21:00etan

Duo Kie eta Rushblaka entzuteko aukera paregabea. Sarrerak aurretik 12 euro eta egunean 15 euro. Ondoren, 00:00etatik aurrera, Trifulca Session-ek funk eta hip-hop doinuak eskainiko ditu.

### Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA ETA JALGI KAFE ANTZOKIA

Ekainean 7tik aurrera

Alboka Abesbatzaren "25. urteurrena" argazki erakusketaz gozatzeko aukera.



### Andoain

#### Musika

BASTERO KULTURGUNEA

Ostirala 7, 21:30ean.

Eñaut Elorrietak "Deserriko kantuak" bere bakarkako lana aurkeztuko du. Sarrera 12 euro.

### Erakusketa

KALEA, BASTERO KULTURGUNEA, URIGAIN

ETXEA, GAZTETXEA, TABERNAK ETA DENDAK

Ekainaren 16ra arte

Andoaingo argazkilari profesionalak eta Gipuzkoako hainbat argazkilarien lanak ikusgai Argazkialdia'13 ekimenaren barruan.

## Herritarren txokoa

### Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, ordulari bat, bi betaurreko graduatu, txandak baten txaketa, bi mugikor, bi pultsera eta eraztun bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbiltzeko, goizez 09:00etatik 13:00etara.

### Alboka Abesbatzaren XXV. urteurrena entseguak eta afaria

Alboka Abesbatzak kide ohiei eta Alboka Txiki, zein Zandategi abesbatzako abeslari izandako gazteei gonbita egiten die, ekainaren 22an eskainiko duen kontzertuan parte hartzera.

Honetarako, "Ilunabarra" eta "Kantuz" lanak landuko dira gaur eta ekainaren 11ean, 20:00etatik aurrera, Zumaburuko Arantzazuko amaren azpiko lokalean.

Era berean, abesbatzak bazkide eta abeslari ohiak gonbidatu nahi ditu ekainaren 22an, kontzertuaren ostean egingo den afarira. Aurrez izena eman behar da 678 382 663 telefono zenbakian ekainaren 12a baino lehen.

### Soka dantza entseguak

Erketz EDT-k San Juan suan dantzatzeko den soka-dantzako entseguak hasi ditu. Aurten asteartean izango dira entsegu irekiak. Horrela ekainak 11 eta 18an izango dira hurrengoak.

Entseguak Erketz EDT-k erabiltzen dituen Zumaburu eskolako lokalean egingo dira guztiak 20:30ean.

Erketz EDT-k gonbita egiten die herritarrei honetan parte hartzeko.

### Uztaro Kooperatiba

Badira urte batzuk Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan hasi zenetik. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteak lokalean banatzen dira barazki eta fruitak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat ateak zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko utzarolasarteoria@hotmail.com helbidean.

### Eskutitza

#### "Lasarte-Oriako atzoko eta gaurko zinegotzi nazionalista guztiei" erantzuna

Nire iritziz, zuek bestela pentsatzen baduzue ere, ezbaian dagoena ez da (edozein) bandera espainola, baizik eta hori inposatu nahi izatea. Zuei berdin baldin bazaizkizue inposatzen zaigun bandera monarkikoa eta bandera errepublikanoa, niri ez zaizkit inondik ere berdin, monarkia eta errepublika berdin ez zaizkidan bezalaxe. Niri ez zaizkit, inolaz ere, berdin gaurko estatu monarkikoa eta autodeterminazio eskubidea eta estatuaren nazioaniztasuna eta hizkuntzaniztasuna onartzen eta babesten dituen errepublika demokratikoa; zuek hain gustuko duzuen estatuen eta oligarkiarren Europa eta nik nahiko nukeen herrien eta langileen Europa berdin ez zaizkidan bezalaxe.

Edonola ere, ez pentsa maiatzaren 17 ekitaldian bandera errepublikanoa zabaldu izanaren arrazoia zuek amorraraztea zenik; bandera espainolaren inposaketaren aurrean errepublikano federalistok/konfederalistok ere horren kontra gaudela adieraztea zen helburua. Ez nuen, eta ez dut, zuen iritzia

edo baimena eskatzeko beharrik ikusi. Ekitaldira agertutako zinegotzi ohien zati (txiki) baten ekarpen apala izan nahi zuen, eta bertarututako askorengandik jaso nuen begikotasuna kontuan hartuta esango nuke ondo ulertuta izan zela.

Bukatzeko, barkatu esatea ni ez nintzatekeela ausartuko esatera zuena "atzoko eta gaurko zinegotzi nazionalista guztien" iritzia edo sentimendua dela. Asko jota ere. EAJ-PNVko eta alderdiz aldatu ziren H1ekoena. Ez behintzat ezkerreko abertzale iraultzaile eta internazionalista zenbaitena.

Gora ikurriña, gora Euskal Herri askatua eta gora herri guztien askatasuna.

Ricardo Ortega,  
Ezker Batuko zinegotzi ohia

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



# Biodibertsitatea eta kultur aniztasuna aztergai

Ingurugiro, mugikortasun eta kultura aniztasunari buruzko gogoeta Eskola Agenda 21aren barruan

**Orain dela 4 urte Lasarte-Oriako Eskola Agenda 21 martxan jarri zen eta geroztik Landaberi eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako LH mailako haurrek gai bat hartuta herriaren kudeaketari buruzko azterketa egiten dute. Aurten biodibertsitatea eta aniztasun kulturala landu dituzte. Alkatea eta hainbat zinegotzirekin izan ziren asteartean Udaltzatza aretoan haien proposamenak eta ideiak jasotzeko.**

Nerea EIZAGIRRE

Udalbatzarrek astear- tean bisitari bereziak izan zituen, Lasarte-Oriako ikastetxeetako 30 bat gaztetxo. Azken lau urteetan legez, Eskola Agenda 21aren baitan ikastetxean egiten dute lana aurkeztu eta honetatik ateratako konpromezu, proposamen eta ondorioak aurkeztu zituzten.

Pablo Barrio alkatea, Taxio Arrizabalaga Gazteria, Festak eta Kirolak saileko zinegotzia, Nerea Sanchez Ingurumeneko zinegotzia eta Boris Nogales Hezkuntza eta Euskara zinegotzia izan ziren batzar berezi horretan Udalaren izenean haurrei erantzuna emateko.

## Dibertsitatea

Aurtengo gaia biodibertsitatea eta aniztasun kulturala izanik, hainbat arlo jorratu dituzte LH3-6 mailako gazteek ikasturtean zehar.

Haiak azaldu bezala, gelan eta gelatik kanpo hainbat ekin-tza burutu dituzte. Aipatzekoak dira biodibertsitatearen arloan "Txoko Berdea"-ren eraketa, ikastetxeetako berde-

guneen azterketa, txori in-sektujaleentzat kabi kaxak ipin- tzea eta irteerak Santa Barbara, Sastarrain edo Arritxulora.

Kultura aniztasunari dago- kionez, jatorri ezberdinetako ikasleen arteko berdintasunak eta desberdintasunak landu dituzte, Inauterietan "Mundu-ko kulturak" gaia landu zen, "Kaixo", "On egin" eta "lagun" hitzak beste hizkun- tzatan nola esaten diren ikasi dute eta Sasoeta ikastetxe-ko gurasoek "Kulturantzasuna- ren I. Astea" antolatu zuen.

## Konpromezuak

Hau guztia aztertu ostean, bi ikastetxeetako gazteek osatu- tako ikasleon arteko foroan konpromezu batzuetara iritsi ziren, baita ikastetxeak ere eta horiek aurkeztu zituzten.

Honela, ikasleek kultura eta hizkuntza aniztasuna kont- tserbatu beharreko ondareztat hartuko dute, kultura ezberdi- netako ikaskideak besteak beste bezala tratatuko dituzte, beste kulturak ezagutzeko interesa erakutsiko dute eta jarrera desegokiak zuzentzeko ahale- ginak egingo dituzte.

Bestalde, ikastetxeek atze-



Lasarte-Oriako ikastetxeetako LH3 eta LH6 maila arteko gaztetxoek aurkeztu zituzten proposamenak eta ideiak.

rritarrek hemengo hizkuntza eta kultura bereganatu deza- ten pausoak emango dituzte eta haien kultura ezagutu eta zabaltzeko ere lan egingo dute.

## Eskaerak

Era berean, herriko berdegu- neak, mugikortasuna eta dibertsitate kulturalari lotuta- ko arazoak azaldu eta eskae- rak ere azaldu zituzten.

Honela, txakurrerantzako gune bereziak, ibai eta bide bazterretan dauden espezie inbaditzaileak sustraitik ken- tzea, zuhaitzen izenak karte- lak ipintzea edo txori in-sektujaleentzat kabi kaxak ipintzea proposatu zuten.

Honetaz gain, Udalak maskotak zaintzeko kanpaina edo Okendo garbiago man-

tentzeko kanpaina martxan jarri behar duela adierazi zuten.

Bidegorri gehiago jartzea, trafikoa murrizteko neurriak edo "traba arkitektonikoak" zuzentzea ere izan ziren haien eskaeren artean.

Aisiako gaiak ere jorratu zituzten. Honela, gaztetxoent- zat jolastoki gehiago eta aiton-amonentzako paseale- kuak edo Michelingo kirol gunea hobetzea izan ziren hizpide.

Azkenik, kultura aniztasu- na lantzeko ideiak aurkeztu zituzten. Nerabe eta gazteent- zat ekintzak antolatu, elkar- guneak sortu, elkarbizitzarako ekitaldiak sortu edo jaietan atzerriko kulturen inguruko ekintzak antolatzea, esate baterako.

## Guztion lana

Alkatea eta zinegotziak pozik agertu ziren ikasleek eginda- ko lanarekin eta ahal izan zuten heinean, Udalak gai hauei buruz duen iritzia eman zuten.

Pablo Barrio alkateak eta Nerea Sanchez ingurumen saileko buruak hainbat ideia gauzaten ari direla azaldu zuten.

Era berean, Taxio Arriza- balagak Kirola, Gazteria eta Festak saileko arduradunak, hainbat puntu kontuan izango zituela aipatu zuen.

Azkenik, udal ordezkari- eskerrak eman zizkieten ikas- leei egindako iradokizunen- gatik eta horrelako proposamenak egiten jarrai- tzerako gonbidatu zituzten gaz- tetxoak.

## Udako Txokoetan programazio anitza

Ez baldin badirudi ere Uda gertu dugu. Eta haurrei udaz gozatzeko aukera ederra da Udako Txokoena. Maila bakoitzeko koordinatzaileekin egon gara egitarauari buruz gehiago jakiteko.

### Natura

Aurtengo HH3-HH4 progra- mazioari dagokionez, Amona Josefinarekin batera naturaren inguruan milaka abentura bizi- tzeke aukera izango dute etxe- ko txikiek.

Baserritxoak eraikitzeaz gain, animalitxo desberdinekin gozatzeko tartea eskainiko zaie.

"Uda izanda, ez gara ur jolasez ahaztu, freskatu eta lagunekin ederki pasatzeko. Gainera hilabetea sorpresa desberdinez bete egongo da, txorimaloa eraiki, egun batez aktore txiki bihurtu, irteerak,

psikomotrizidade saio mundia- lak..." aipatu dute.

Era berean, uztailearen 24ean, gurasoentzako sopesa- txo bat prestatuko dutela ere aurreratu dute.

### Euskal Mitologia

HH5, LH1 eta LH2ko haurren- tzat, berriz, aurtengo udako txokoak berebizikoak izango direla aipatu dute.

Gai nagusia euskal mitolo- gia izango da eta honen ingur- uan jolasteko parada izango dute Mari jainkosa izanik guz- tion buru.

"Honela, kirolaz, ur jola- sez, irteeretz... gozatzeaz gain "Ikimilikiliklik" izeneko ginkana izango dute, azti- keriari eta edabe magikoen egun berezia eta herrian zehar Mari- ren urrezko orraziaren bila jar- duteko jolas mundiala, azpimarratu digute.

Hau gutxi balitz, hilaren 19an, Manuel Lekuonan egun- doko jaialdia egingo dutela irag- rari dute, haur talde bakoitzak euskal mitologiako pertsonaia bat izanik hizpide.

"Eta jaialdi honen berri emateko astebate lehenago akelarre magikoa eratuko dugu Okendo enparantzan. Beraz, aurtengo txokoetan ez da falta- ko magia, sorginkeria, dantza eta misteriorik, izugarria izan- go da, zinez berezia" jakin arazi dute.

### Abentura nagusi

8-12 urte bitarteko gaztetxo- en kasuan, abentura izango da nagusi bai txokoetan, baita kanpaldietan ere.

Udako Txokoetan Euskal Herria Express gaia izango da oinarria. Honela, proba ezber- dinak gauzatu beharko dituzte, "astelehen eta astearteak izan-



Udako Txokoetako lan taldearekin egitarauari buruz hitz egin dugu.

go dira proga-egunak, eta asteazkenak, ordea, duela- egunak. Duelu hauek, gaitasun ezberdinak lantzeko apropos eginak dira, taldeka nahiz bakarka".

Ostegunetan, berriz, "egun-pasa paregabeetaz gozatzeko aukera" iznago da igerilekuak, mendi-irteerak, hondartza ...

Eta ostiraletan, Jostakirola programaren txanda izango

da, aurten berrikuntza interes- garrieekin ...

Udaleku itxietan, berriz, espioaik izango dira Albeniz- en, superheroiak Mendigo- rrian, misioak Donemiliagan...

Argi dago burupelotak martxan jarri dituztela hezi- tzaile eta begiraleek. Eta azken ukituak emateko ere gogor ari dira lanean, "Prime- rako udalekuak!" izan daite- zen.